

Terminologiaren teoria orokorra

Andoni Sagarna

Elhuyar eta UZEIko bazkidea

1. Zientzien eta teknikaren garapenak premia berriak sortu zizkion hizkuntzari

Azken hiruzpalau mendetan gizartearen egitura eta bizimoduak errotik astindu dituen hainbat gertakari izan da. Horien artean eragingarrietakoak zientziak eta teknikak egindako aurrerapenak izan dira inondik ere. Aldi berri horren hasieran zientziaren helburuak, metodoak, teoriak, bitartekoak asko aldatu ziren. Eredu intelektual berri bat gauzatu zen.

Eraberritze horretan hizkuntzak ere izan zuen aldaketarik noski. Ez zientzi hizkuntzak bakarrik, arruntak ere bai, baina, artikulu honetan azaldu nahi dudana gaia zientziaren eta teknikaren hizkuntzarekin oso lotua dagoenez, hizkuntza arruntarekikoak ez ditut oraingoan aipatuko. Zientzi hizkuntzaren aldaketarik nabarienteko bat latinaren erabileraren beherkada izan zen. Ordurako eguneroko bizimodutik aspaldi desagertua zen eta lekuan lekuko hizkuntzak erabiltzen ziren, baina zientzilarien artean, eta batez ere unibertsitate-munduan, latina indartsu egon zen XVII mendera arte. Mende horretan eta hurrengoan, ordea, egoera hau irauli egin zen. Hizkuntza arrunt haiek maila jasoko zereginetan erabiltzen hasi ziren. Kontuan izan behar da, gainera, zientziaren berrikuntzak be

rak eskakizun berriak ezartzen zizkiola hizkuntzari. Zientzilariek hizkuntza zehatzagoaren premia nabaritu zuten.

Zenbait jakintza-eremutan ahalegin handiak hasi ziren egiten sailkapen-sistemak eta nomenklaturak lantzeko.

Linneok, 1758an, bere **Systema Naturaeren** azken edizioan, gaur egun zoologian eta botanikan oraindik erabiltzen diren bizidunak izendatzeko arauak eman zituen.

Lavoisier, Guyton de Morveau, Berthollet eta Fourcroy-k 1787an gaurko nomenklatura kimiko inorganikoaren oinarria izan zen sistema argitaratu zuten eta T. Thompson-ek 1804ean zenbait hobekuntzaz hornitu zuen sistema hori. Kimika organikoari dagokionez, 1892an Genève-n egin zen nazioarteko kongresu batean erabaki ziren nomenklatura finkatzeko lehen arauak.

Teknologiaren arloan, berriz, azken bi mendetan aplikazio industrialek izan duten garapenak, produkzioa nazionalizatu ahal izateko, arauak ematera behartu ditu nazio industriatu guztiak.

Produktuen diseinu eta fabrikaziorako milaka xehetasun arautu dira. Hasi planoen tamainatetik eta bertan erabiltzen diren ikurretatik eta materialetaraino edo pinturen koloretaraino dena dago zehatz-mehatz erabakia. Estatu guztietan bada arau hauek lantzen eta argitaratzen dituzten erakundeak: Alemanian DIN eta VDE, Italian UNI, Frantzia AFNOR, Erresuma Batuan BS, Sovietar Batasunean GOST, Estatu Batuetan ASA, AISI, ASTM, API etab., Espainian UNE...

Hogeitabi Estatutako standardizazio erakundek *International Federation of the National Standardizing Association* (ISA) erakundea fundatu zuten 1926an, "Nazioen arteko salkari- eta zerbitzu-trukea errazteko eta arlo intelektual, zientifiko, tekniko eta ekonomikotan elkarren arteko ulermena lortzeko asmoz".

II. Gerra Mundialaren ondoren, 1947an, ISAREN ordezko *International Organization for Standardization* (ISO) erakundea jaio zen eta honek geroztik Genève-n dauka bere egoitza

Edozein giza ihardueratan bezala, industri lanean ere hizkuntzak berebiziko garrantzia du eta, espero zitekeen bezala, erakunde hauek arduratu dira beren arloko hizkuntz arazoak konpontzen.

2. Terminologiaren Teoria Orokorren jaiotza

Eugen Wüster (1898-1977) injineru austriarraren **Internationale Sprachnormung in der Technik** (1931) obra abiapuntutzat hartuta Terminologiaren Teoria Orokorra (alemanez **Allgemeine Terminologielehre**) jaio da.

Artikulu honetan disziplina horren historiaren zenbait xehetasun eta bere planteamenduen azalpen llaburra egiten ahalaginduko naiz.

Ikusiko dugun bezala, Terminologiaren Teoria Orokorrak (T.T.O.) oso garapen autonomoa izan du, hizkuntzalaritzatik urrun ibili da eta ez hori bakarrik, zenbait aldiz hizkuntzalarien eraso bortitzak jasan behar izan ditu, gerora hauek terminologiarren lana hobeto konprenitzen hasi badira ere.

Sovietar Batasuneko Zientzi Akademiak kritikatu ondoren, 1935ean, standardizaziorako Sovietar Elkarteak Wüster-en lana itzuli eta argitaratu zuen. Drezen terminologiarri soviatarak Wüster-en lana aipatuz egin zuen txostena aintzakotzat hartuta, ISAk 1934ean Stockholm-en egin zuen batzarrean, Sovietar Batasunak (SESB) terminologi arazoez arduratuko zen batzorde tekniko bat sortzea proposatu zuen. Txosten hori standardizaziorako 19 elkarte nazionalek onartu zuten. Drezen txosten hau egiteaz gain asko arduratu zen Wüster-en teoriak ezagutzera ematen.

Stockholm-eko batzarrean hartutako erabakiaren ondorio bezala, 1936an "ISA Terminologia 37" batzorde teknikoa eratu zen eta handik piska batera batzorde hau Budapest-en lehen aldiz biltzeko deia egin zen.

Zoritzarrez, II. Gerra Mundialak batzorde honen lanak bertan behera utzi beharra ekarri zuen. Lan horiek ISAREN hiztegiak egiteko erizpideei buruz, hizkuntza desberdinak kontutan hartu gabe kontzeptuak izendatzeko proposatu beharreko arazuez eta termino tekniko internazionalentzako arazuei buruzkoak ziren.

ISAREN ordez, gerraostean, International Organization for Standardization (ISO) deritzon erakundea sortu zenean, honek ISA 37 batzordearen lanari jarraitzeko TC 37 batzorde teknikoa eratu zuen 1951an. Geroztik ISO/TC 37 batzordeak Austriako Standardizazio-Institutuan du bere ordezkaritza

ISO/TC 37 1967 eta 1973 bitartean gomendio batzu eta arau bat argitaratu zituen

Wüster-ek 1972tik 1974era bitartean Viena-ko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Institutuan eman zituen klaseetan erabiltzeko bere **Einführung in die Allgemeine Terminologielehre und Terminologische Lexikographie** idatzi zuen eta, 1977an, autorea hilda gero, eskuizkribua argitaratua izan zen 1979an.

Azken hamarkadetan ahalegin handiak egin dira T.T.O. beste zientziekin erlazionatzeko.

Horretarako zenbait simposium egin dira. Hauen artean aipagarrienak 1969ko abenduan eta 1971ko abenduan "Terminologiaren lekua gaurko zientzien sisteman" eta "Zientzi hizkuntzen, Terminologiaren eta Informatikaren problema semiotikoak" izenekin egindakoak izan dira.

Gai honi buruzko ikerkuntzan nagusigoa SESBak du gaur egun. Duela hogeitabat urtez geroztik bada han terminologia arautzeko departamentu zentral bat eta Sovietar Batasun osoan banatutako 300 ikerkuntz institutu baino gehiago daude hari atxikita.

Alemanian ere garrantzi handia aitortu zaio arazo honi. Dr. Schröder garai hartan Defentsa-Ministraria zenak, 1969an, Hizkuntz Departamentu Federala (Bundessprachenamt) delakoa sortu zuen terminologi departamentu baten eginkizunak betetzeko.

Lan hauen eragina ez da Estatu-mailan geratzen, zeren AILAk (Hizkuntzalaritza aplikatuaren nazioarteko elkarteak) koordinatzen bait ditu nazioartean.

UNESCOk 1971an bere egoitza Vienan duen INFOTERM izeneko terminologi arazoetarako nazioarteko zentrua eratu zuen.

Wüster-ek Terminologiaren Teoria Orokorren Vienako Eskola fundatu zuela esan daiteke. Honek horrela definitu zuen T.T.O.:

"Hizkuntzalaritza, logika, ontologia, informazioaren zientzia eta zientzia berezituaren arteko disziplinararteko eremu bat"

Disziplina honen ikergaiak ondokoak dira: kontzeptuen izaera, kontzeptuen sorkuntza, kontzeptuen ezaugarriak, kontzeptuen arteko erlazioak, kontzeptuen deskribapena (definizioa), kontzeptuei izendapenak (ikurrak, terminoak) esleitzea, "banako objektua/kontzeptua/izendapena" erlazioa, terminoen izaera, terminoen egitura, kontzeptuen eta terminoen batera-

kuntza, nazioarteko terminologia baterako proposamenak, lexicografia terminologikoaren metodologia etab.

T.T.O.k zientzia eta hizkuntza konkretuei lotu gabeko arauak formulatzen ditu, baina terminologiaren teoria berezituak aplika dakizkieke bai zientzia jakinei (medikuntza, kimika, etab...) eta bai hizkuntza jakinei.

3. T.T.O.ren eta Hizkuntzalaritzaren arteko diferentziak

Bi jakintza hauen arteko desberdintasunak hizkuntzaren hiru alderdiri buruzko planteamendutan nabari daitezke:

- A) Hizkuntzaren egoerari (alemanez *Sprachzustand*) buruzko plantemendutan.
- B) Hizkuntzaren garapenari (alemanez *Sprachentwicklung*) buruzkotan.
- C) Hiztegien aurkezpenari dagozkionetan eta baita logika eta ontologiako erizpideak nahiz informazioaren zientziakoak erabiltzeari eta disziplina espezializatu desberdinekin (fisika, kimika, medikuntza...) dituen harremanei dagozkionetan.

A) Hiru ezaugarri ditu T.T.O.ren hizkuntzaren egoerari buruzko planteamenduak:

- a) Terminologi lana kontzeptuetatik abiatzen da, h.d. definiziotatik abiatzen da eta ez terminoetatik. Kontzeptu bakoitza inguruko beste kontzeptuetatik argi eta garbi bereizten da. Kontzeptuen erreinuak bere izaera propioa du terminoen erreinutik at.
- b) Terminologiaren Teoriak hiztegia du aztergaitzat Flexioa eta sintaxia hizkuntza arrunt bakoitzetik hartzen da.
- c) Terminologiaren planteamendua sinkronikoa da. Terminologia berezitu bakoitza bere garaian garaiko kontzeptu-sistemaz arduratzen da.

B) Hizkuntzaren garapenari buruz hizkuntzalaritzak eta T.T.O.k planteamendutan dituzten diferentziak ondokoak dira.

a) Terminologiak berariaz eskuhartzen du hizkuntzan. Kontzeptuak eta terminoak nahita sortzen dira. Hizkuntza arruntean, aldiz, araua erabilerak zertzen du eta hizkuntzalaritza hizkuntzaren deskribapenean geratzen da.

Hori izan da behintzat hizkuntzalaritza "konbentzionalarren" jarrera, nahiz eta egungo zenbait hizkuntzalarik beste planteamendu batzu egin.

Izan ere, Hizkuntz Plangintzaz arduratzen diren espezialistek disziplina honek bere teoria eta metodologia propioak behar dituela adierazi izan dute. Zientzia honi izen desberdinak jarri izan zaizkio, adibidez: hizkuntzalaritza praktikoa (A. Peškovskij), hizkuntzalaritza aplikatua (Bruno Migliorini, H. Spang-Hansen), hizkuntzalaritza preskriptiboa (Punya Sloka Ray), hizkuntzalaritza arauemailea (Einar Hangen), Hizkuntz Plangintzaren teoria (Valter Tauli). Hizkuntzalaritza aplikatuaren lanarlotzat hartzen dira ez hizkuntz plangintza bera bakarrik baizik eta baita beste zenbait iharduerak osatzen duen multzoa ere, hala nola: hizkuntzalaritza konputazionala, hizkuntzalaritza matematikoa, itzulpen automatikoa, hizkuntza arrotzen irakaskuntza, etab.

Hizkuntzarekiko planteamendu preskriptiboa bereziki interesgarria da normalizazio-bidean dauden hizkuntzentzat.

Terminologi arazotan hizkuntza berekasa utziko balitz nahaste kaltegarri bat baizik ez litzateke sortuko. Horregatik, terminologilariak kontzeptuak eta terminoak bateratzen hasi ziren mende honen hasieran eta zenbait eremutan lehenago oraindik, arestian aipatu den bezala. Ahalegin hauei esker, terminologia eta nomenklatura arautuak lortu ziren.

Terminologiak, hortaz, deskribatu bakarrik ez, arautu ere egiten dira.

Gaur egun 10.000 hiztegi arautu baino gehiago daude munduan (ik. Infoterm Series 2 "International Bibliography of standardized vocabularies").

Hiztegi hauek Estatu desberdinetako standardizazio-erakundeek, ISOk, erakunde zientifiko, tekniko eta profesionalek eta enpresa handiek arautzen dituzte

Terminologia arautzeko beharra ugaritasun izugarriak eta zehaztasunaren premiak ezartzen dute.

- b) Terminologiaren standardizazioa nazioartekoa da. Honegatik terminoen standardizazioak erizpide batzuk eta hizkuntza zehatzei lotugabeak eskatzen ditu. Teorian oinarritutako erizpideak behar dira. Hau lortzeko asmoz, ISOk terminologi eta terminologiazko lexikografi lanetarako oinarri batzu landu zituen.

Lau sailetan banatzen dira hauek:

- 1) Hiztegia
ISO/R 1087-1969 "Terminologiaren hiztegia"
- 2) Metodologia
ISO/R 919-1969 "Hiztegi sailkatuak lantzeko gida"
- 3) Izendapen-oinarriak
ISO/R 704-1968 "Izendapen-oinarriak"
ISO/R 860-1968 "Kontzeptuen eta terminoen nazioarteko baterakuntza"
- 4) Hiztegi sailkatuen aurkezpena
ISO/R 1149-1969 "Hiztegi eleaniztun sailkatuen aurkezpena"
ISO/R 639-1967 "Hizkuntza, herrialde eta autoritateentzako ikurrak"
ISO 1951-1973 "Lexikografi ikurrak, bereziki definiziozko hiztegi sailkatuetan erabiltzeko"

- c) Hizkuntza idatziaren lehentasuna. Terminologiaren ikuspegitik forma idatziak lehentasuna du ahozkoarekiko. Terminoen forma idatzia da hain zuzen nazioarteko mailan batzen dena. Hizkuntza desberdinetan ia forma idatzi berbera duten hitzek oso ebakera diferenteak dituzte.

4. Kontzeptuak eta kontzeptu-sistemak dira T.T.O.ren oinarria

Wüster-ek (1974) zioenez, hizkuntza kontzeptu-sistematzat hartzeko jarrera Ferdinand de Saussure-rekin hasi zen.

F. de Saussure-ren klaseetan ikasleek hartutako apuntetan oinarrituz, irakaslea hil ostean, argitaratu zen **Cours de Lin-**

guistique générale liburuak ez omen zuen alemanieraren lurraldetan eragin handirik izan, besteak beste, alemanierarako itzulpena 1931.a arte ez zelako argitaratu, baina antzeko planteamenduak egin zituzten Leo Weisgerber-en eta Jost Trier-en lanek zabalkunde handia izan omen zuten.

F. de Saussure-ren planteamenduak fonologiaren arloan oso aintzakotzat hartu izan diren bezala, lexikologian eragina askoz txikiagoa izan da.

Salbuespen aipagarriena Pragako Zirkuluko hizkuntzalariena izan da. Hauek lan sakonak egin zituzten fonologiaren arloan, hala nola Nikolai Trubetzkoy-k burutu zituenak 1923 eta 1938 bitartean, baina, horretaz gainera, beste herrialde askotan ez bezala, hizkuntzalari horiek asko interesatu ziren bizimodu modernoak hizkuntzaren erabilerari ezartzen zizkion eskakizun berriez.

Beste leku batzutan filologia tradizionala arazo hauetatik oso urrun ibili zen eta batzutan zientziaren eta teknologiaren hizkerari buruzko kritika garratzak egin zituen.

Erretorika eta poetika tradizionalaren ikuspegitik eginak ziren kritikaok.

Txekoslovakian, ordea, 1920. urtetatik aurrera sakonki aztertu dira terminologia eta zientziaren hizkuntza.

Ikertzaile haiek agudo ulertu zituzten Wüster-en teoriak, F. de Saussure-ren eta Leo Weisgerber-en obrek oinarri teorikoa ipini zioten lexikologia estrukturalistari, eta praktika lexikografikoan ere izan zuten beren oihartzuna. Leo Weisgerber-ek berak, bere **Muttersprache und Geistesbildung** (Göttingen 1929) obran, teoria hori lexikografian aplikatuz gero hiztegi-gintza hobetekeen ustea azaldu zuen. Hiztegiak ez liratekeela ordena alfabetikoan soilki ordenatu behar zioen, edukinaren arabera ere bai, baizik.

Idea hau lotan geratu zen harik eta 23 urte geroago Walther von Wartburg eta Rudolf Hallig hizkuntzalariek **Begriffssystem als Grundlage für die Lexikographie** (1952) argitaratu zuten arte.

W. von Wartburg-ek bere lana Londres-en egin zen Hizkuntzalariei Nazioarteko VII. Kongresuan aurkeztu zuenean izugarritzko arrakasta izan zuen. Aurkezpen horretan Julio Casares-en **Diccionario Ideológico** (1942) goraiatu zuen Go goan izan behar da, bestalde, Casares ez zela lanbidez hizkuntzalaria, diplomatikoa baizik.

W. von Wartburg-ekin hizkuntzalariek ediren zutena terminologiariek 50 urte lehenago garatua zuten.

Ordenazio alfabetikoaren eta ordenazio sistematikoaren aldekoen arteko eztabaidak mende honen hasieran izan ziren Alemanian hizkuntza teknikoaren eremuan.

Verein Deutscher Ingenieure (VDI) injineru alemanen federazioak 1900. urtearen inguruan hiztegi tekniko handi bat, **Technolexikon** zeritzana, egin zezan agindu zion filologo baten zuzendaritzapean ihardungo zen lantalde bati. Alfabetikoki ordenatzeko asmoa zuten hiztegi hau.

Berehala ikusi zen lan eskergea zela hura, zeren 1902tik 1907ra taldeak 3.600.000 fitxa bilduak bait zituen.

Bitartean, 1906an, Alfred Schlomann injineruak makina-atalei buruzko hiztegitxo bat argitaratu zuen, sistematikoki ordenatua eta irudiz hornitua, sei hizkuntzatan. Lan honek harridura sortu zuen.

VDIren kontseiluak 1907an egin zituen kalkuluen arabera, **Technolexikon** hiztegia burutzeko, ordurarteko metodologia erabiltzekotan, beste 40 urte beharko ziren.

VDIk aholkua eskatu zion Koloniako Unibertsitatean filologia ingelesa irakasten zuen eta lexikografoa zen Arnold Schröder-i erabaki bat hartu ahal izateko. Honek Schlomann-en metodologia hobetsi zuen eta **Technolexikon** zelako hori bertan behera utzi eta Schlomann-en lana finantzatzen hasi zen VDI elkarteak. Ondorengo urteetan, 1932.a bitartean, 17 tomo lodi egin zituzten baina nazismoak lana gerarazi zuen eta 1935ean Schlomann-ek Alemaniatik erbesteratu egin behar izan zuen.

Hizkuntzalariak Schlomann-en aurka zeuden.

Prozesu hau ez da Alemanian bakarrik gertatu, beste leku batzutan ere izan da horrelakorik.

Nazioarteko Batzorde Elektroteknikoak ere halatsu jokatu zuen. Sei hizkuntzatarako Elektrokenia-Hiztegia egiteak behar izan zituen 30 urtetatik, 15 bat ordenazio alfabetikoa erabili nahi izategatik galdu ziren.

Hura bide okerra zela konturatu eta 1924ean ordenazio sistematikoa erabiltzea erabaki zutenetik aurrera lanak asko bizkortu ziren


5. T.T.O.ren oinarri teorikoak

5.1. Wüster-en eredia

Aipatu den legez, terminologiariek lexikografian erabiltzen zen metodologiaren moldeak hautsi behar izan zituzten eta gaur egun badago, eremu teknikoetan behintzat, ongi asentatua dagoen lan-prozedura bat. Eugen Wüster izan zen honi oinarri teorikoa ipini ziona.

Bi erro zituen Wüster-en teoriak: Hizkuntzaren eta errealitatearen arteko erlazioei buruzko Gumperz-en (1908) eredia eta Ferdinand de Saussure-ren teoria.

Gumperz-en eredia beste hainbat autorek ere erabili izan duen triangelu ezaguna da:



Eredu hau autoretik autorera pasa da. Hauen artean ondo-koak aipa daitezke:

Gumperz (austriarra)	1908
Dittrich (alemana)	1913
Ogden (ingeleza)	1923
Ullman (ingeleza)	1952
Knobloch (austriarra)	1956
Baldinger (alemana)	1959

Ogden psikologo ingelesaren kasuan xehetasun bat aipa daiteke: bere **The Meaning of Meaning** (1923) liburu famatuan izen berriak ipini zizkiela eskuineko bi erpinei: "banako objektua" ipini ordez "erreferentea" ezarri zuen eta "kontzeptua", "esanahia" edo "ideia" ren ordez "erreferentzia" jarri zuen.

Baldinger-ek eredu triangeluarra berriro aurkeztu zuen urte berean, 1959an, Wüster-ek zenbait ohar egin zituen eredu hori aldatzeko. F de Saussure eta von Trubetzkoy ren erizpi detan oinarrituz, triangeluaren ezkerreko bi erpinak banandu eta bina puntutan zatikatu behar zirela zioen.

Eskema honetan:

$a_1, a_2 \dots$ era bereko banako objektuak

A: Banako objektuei dagokien kontzeptu orokorra

Adibideak:

a_1 = aulki jakin bat

a_2 = beste aulki jakin bat

$b_1, b_2 \dots$ forma foniko eta idatziak

B: Banako forma foniko eta idatziei dagokien kontzeptu orokorra

Adibideak:

b_1 = "aulki" hitzaren forma idatzi edo ahozko bat

b_2 = "aulki" hitzaren beste forma idatzi edo ahozko bat

Eskemaren goialdeak hizkuntz sistemari dagozkion kontzeptuen esfera adierazten du.

Behealdeak errealitate hautemangarria adierazten du.

Kontzeptu bakoitzari banako adierazpen batzu dagozkio. Banako kontzeptuak (A_1, A_2) banako objektuei dagozkie (a_1, a_2) eta banako kontzeptuak kontzeptu orokor batean biltzen dira (A).

Ikurra den B kontzeptua A kontzeptuari esleitzen zaio, hots, forma idatzi edo ahozko zenbaiten (B_1, B_2) kontzeptu orokorra da B. Ikurra banako elementuen (b_1, b_2) forma idatzi edo ahozkoen bitartez idazten edo mintzatzean gauzatzen da. Forma bakoitza bestetarik apur bat desberdina da, adibidez "aulki" edo "AULKI" hitz idatziak.

Errealitatean ez dago kontzepturik. Izaki pentsatzaileongandik at baden objektuen mundu batean bizi gara. Banako objektuak materialak izan daitezke, hala nola etxe bat edo hegazkin bat, baina ez-materialak ere bai: alegiazko ekaitz bat, adibidez. Banako objektuei izen propioak ematen zaizkie: "Gorbea", edota banako kontzeptuei zuzenean terminoak esleitzen zaizkie: "mendi" hau, "mendi" hori.

Kontzeptu orokor bat (ez banako kontzeptu bat), eskuarki, termino baten, letrazko ikur baten edo beste era bateko ikur baten bidez adierazten den pentsamendu-unitatea da. Zenbait objektutan nabaritzen ditugun ezaugarri erkideen multzoari dagokio eta gogoeta ordenatzeko bitarteko bat da.

Bi motatako ezaugarriak daude: intrintsekoak eta estrintsekoak. Kontzeptuen izendapenerako ezaugarri intrintsekoak hobesten dira mundu guztiarentzat estrintsekoak baino naba riagoak diren heinean.

Kontzeptua osatzen duten ezaugarri guztien multzoa kontzeptu horren intentsioa da eta kontzeptuaren hedadura kontzeptu horren espezie irudigarri guztien multzoa edo banako objektu guztien multzoa edo osotasun baten atal guztien multzoa da.

5.2. Kontzeptuen arteko erlazioak

Kontzeptuak ez dira beraien artean zerikurisik gabeak, baidik eta inguruko kontzeptuekin erlazioak dituzte.

Wüster-ek erlazio hauek aztertu eta honela sailkatu zituen:

- 5.2.1 Erlazio logikoak
- 5.2.2 Erlazio ontologikoak
- 5.2.3 Material/produktu erlazioak
- 5.2.4 Segidazko erlazioak
- 5.2.5 Beste zenbait erlazio
- 5.2.5.1 Kausalitatea
- 5.2.5.2 Bitartezkotasuna
- 5.2.5.3 Ondorengotasuna
- 5.2.5.3.1 Ondorengotasun genealogikoa
- 5.2.5.3.2 Ondorengotasun ontogenetikoa
- 5.2.5.3.3 Substantzi egoeren arteko ondorengotasuna

5.2.1. Erlazio logikoak antzekotasun-erlazioak dira:

a) Erlazio bertikalak (genero > espezie)

goiko ordena: generoa
beheko ordena: espeziea

Adibidez: Ibilgailua > hegazkina

Hiru kontzeptu edo gehiagoren arteko erlazioak ager daitezke kontzeptuen segida logiko bertikal batean.

Adibidez: ibilgailua
lehorreko ibilgailua
motorezko ibilgailua
automobila

.....
.....

b) Gainjarpena (×)

Adibidez: hezkuntza × irakaskuntza

c) Erlazio horizontalak (")

Adibidez: lehorreko ibilgailua " uretako ibilgailua

Hiru kontzeptu horizontal edo gehiagoren arteko erlazioak ager daitezke kontzeptuen segida logiko horizontal batean.


lehorreko ibilgailua " aireko ibilgailua " itsas ibilgailua " espazioko ibilgailua...

d) Erlazio diagonalak (/ , \)

Adibidez: arratoi-zakurra / katua
katua \ arratoi-zakurra

Eremu jakin bateko kontzeptuen arteko erlazio logikoak adieraz daitezke bere osotasunean kontzeptu-sistema gisa. Kontzeptuak sailkatzeko hautesten diren ezaugarri-motek kontzeptu-sistemen egitura zertzen dute.

Adibidez:



Bi kontzeptu batuz sor daiteke kontzeptu berri bat era desberdinetan:

a) Zehaztapenez.

Kontzeptu baten intentsioan bigarren kontzeptu bat txertatzen da emendiozko ezaugarri moduan intentsio hori murriztuz.

Adibidez: ibilgailu —| lehorreko = lehorreko ibilgailu

b) Kontzeptuen konjuntzioz.

Kasu honetan elkartzen diren kontzeptuen intentsioak batzen dira.

Adibidez: mediku \wedge ikertzaile = mediku ikertzaile
Konjuntzioaren emaitza, batzen diren kontzeptuen ondorengo espezie erkidea da.

c) Kontzeptuen disjuntzioz.

Kasu honetan elkartzen diren kontzeptuen hedadurak batzen dira eta emaitza kontzeptu horien ondorengo genero erkidea da.

Adibidez: gizona \vee emakumea = pertsona heldua

5.2.2. Erlazio *ontologikoak* ondokotasun-erlazioak dira, dela denborari, dela espazioari dagokionez. Erlazio ontologikorik garrantzitsuenak osotasunaren eta honen atalen artekoak edo atalen beraien artekoak dira, h.d. erlazio partitiboak.

a) Erlazio partitibo bertikalak (osoa \rangle — atala)

goiko ordena: osoa

beheko ordena: atala

Adibidez: Europa \rangle — Euskadi

Hiru elementu edo gehiagoren arteko erlazio partitiboak (osoa, atala, azpiatala, etab.) elementu-segida partitibo batean ager daitezke.

Adibidez: automobila

motorea

zilindroa

b) Gainjarpen partitiboa (\rangle —()

Adibidez: biologia \rangle —(biofisika

c) Erlazio partitibo horizontalak ($\|$ —)

Osotasun beraren maila bereko atalen arteko erlazioak dira

Adibidez. biela $\|$ — pistoia

Osotasun beraren atalak diren hiru elementu edo gehiagoren arteko erlazio partitibo horizontalak ager daitezke elementu-segida partitibo horizontal batean.


Adibidez: txasisa |— karrozeria |— motorea |— balaztak |— direkzioa

d) Erlazio partitibo diagonalak (< , >)

biela < karrozeria
direkzioa > motelgailua


Osotasun baten atalen eta azpiatalen arteko erlazio partitiboak ager daitezke kontzeptu-sistema partitibo batean.

Adibidez:



Bi elementu elkartuz osotasun berri bat sor daiteke.

Adibidez:



5.2.3. Material/produktu erlazioak

Adibidez: zura ohola

5.2.4. Segidazko erlazioak

Adibidez: Urtarrila → Otsaila

5.2.5. Beste zenbait erlazio

5.2.5.1. Kausalitatezko erlazioak

Adibidez: tximista → trumioa

- 5.2.5.2. Bitartezkotasun erlazioak
Adibidez sopletea → soldadura
- 5.2.5.3. Ondorengotasuna
- 5.2.5.3.1. Ondorengotasun genealogikozko erlazioak
Adibidez ama → alaba
- 5.2.5.3.2. Ondorengotasun ontogenetikozko erlazioak
Adibidez: arrautza → larba
- 5.2.5.3.3. Substantzi egoeren arteko erlazioak
Adibidez:
 $^{238}\text{U} \rightarrow ^{234}\text{U} \rightarrow \dots \rightarrow \text{Ra} \rightarrow \dots \rightarrow ^{222}\text{Rn} \rightarrow \dots \rightarrow ^{206}\text{Pb}$

5.3. Definizioak

Definizioa kontzeptuaren hitzezko deskribapena da eta kontzeptu horrek berarekin erlazionatzen diren kontzeptu guztien sisteman duen posizioa zertzen du. Hiru definizio-mota daude:

5.3.1. Intentsiozko definizioa.

Kontzeptu jakin baten ezaugarri guztien multzoa agertzen du.

Hurbileneko generotik eta kontzeptu hori bere segida horizontaleko beste kontzeptutatik bereizten duten ezaugarri murriztaileenetik abiatzen da.

Adibidez: Abioia: Aireko ibilgailua, airea baino astunagoa, hego finkoduna eta motorez higierazia.

5.3.2. Hedaturazko definizioa.

Genero bereko eta abstrakzio-maila berekoak diren espezieak edo osotasun baten atalak zerrendatzen ditu definizio-mota honek.

Adibidez: Aireko ibilgailu airea baino astunagoak planea-doreak, kometak, abioiak, jirabioiak eta ornitopteroak dira.

5.3.3. Testuinguru bidezko definizioak.

Definitzen den kontzeptuari dagokion terminoa esaldi batean aurkezten da.

Adibidez: "Aireko ibilgailu batzu airea baino arinagoak dira baina beste batzu ez. Azken hauen artean ere badira diferentziak, zeren abioiek eta ornitopteroek hegoak dituzte, lehenengoen finkoak eta bigarrenen, berriz, txorien hegoen antzera higitzen direnak, baina jirabioiek ez dute hegorik.

Orain arte aipatu ditugun aireko ibilgailu airea baino astunago guztiak motorez higieraziak diren bezala, beste batzuk ez dute motorerik, hala nola, planeadoreek eta kometek.

Kometen igotze-indarra haizearekiko higadura erlatiboak sortzen du, dela lurrera lotzen dituen soka finko egonda, dela honen bidez atoian eramanda".

5.4. *Terminoak. Terminoen eta kontzeptuen arteko erlazioa.*

Termino bat kontzeptu baten izendapena da. Izan daiteke "hitz" bakarra, hitz-elkarketa ala eraikuntza sintagmatikoa. Hizkuntza teknikoaren oso eskakizun inportante bat kontzeptuen eta terminoen arteko erlazioak biunibokoa izan behar duela da. Printzipio honen arabera ez litzateke ez sinonimorik eta ez homonimorik onartu behar. Honetan hizkuntza tekniko eta literarioa arras kontrakoak dira, espresio ederrak sinonimian eta homonimian aberastasun-iturri paregabea aurkitzen bait du.

Homonimiaren arazoak bere zailtasuna du hizkuntza teknikoan, hain zuzen ere, edozein hizkuntzatan irispidean dau den erroen kopurua izendatu beharreko kontzeptuen kopurua baino askoz txikiagoa delako.

Schmidt-Hidding-en (1955) ereduak konponbide bat ematen dio kontraesan horri. Eredu horren arabera zentzu bakarra (*Einsinnigkeit*) eta esanahi bakarra (*Eindentigkeit*) bereiz daitezke.

Izendapen batek bere testuingurutik kanpora esanahi bakarra duenean, zentzu bakarrekola dela esaten da.

Bi izendapenek forma berbera baina esanahi desberdinak dituztenean homonimioa dugula esaten dugu.

Homonimo-mota desberdinak daude eta erizpide diferenteen arabera sailka daitezke:

- a) Homofonoak Grafia desberdina izan arren ebakera berbera dutenak

Esate baterako espainieraz "vasto" eta "basto", "honda" eta "onda", "ribera" eta "rivera", "revelar" eta "rebelar"...

- b) Homografoak: Idazkera berbera baina ebakera desberdina dutenak.

Adibidez: ingelesezko "tear" (= *malkoa*) eta "tear" (= *ta-rrata*).

- c) Homonimo osoak: grafika berbera eta ebakera berbera dutenak.

Euskaraz: "horma" (= *pareta*) eta "horma" (= *jela*).

Jatorriaren arabera bereizketa hauek egin daitezke:

- a) Homonimo kasualak: Jatorriaren aldetik zerikusirik ez dutenak.

Adibidez: alemanez "kiel" (= *kainoia*) eta "kiel" (= *gila*).
Honelakotan polisemia dagoela esaten da.

- b) Transferentziazko homonimoak. Baten esanahia beste baten esanahiaren transferentziaz sortzen denean.

Adibidez: "burua" (bizidun batena) eta "burua" (torlojoa-rena).

Transferentziazko homonimoen artean sail berezi batekoak dira homonimo mailakatuak. Kasu honetan bati kontzeptu zabalagoa dagokio besteari baino.

Adibidez: "gatza" (kimikan) eta "gatza" (sukaldeko gatz arrunta = CINa).

- c) Forma bereko baina esanahi desberdineko konposatuak.

Honela Azkueren hiztegian: "emazte-gizon" (= *hombre afeminado*) eta "emazte-gizon" (= *mujer hombruna*).

6. Terminologia eta terminologi bankuak hizkuntzaren normalizazioaren zerbitzuan. Quebec-eko kasua. Eta hemen?

Terminologiak zertan lagun diezaiguke guri? izango da burutzen zaizun galdera. Egokia deritzat gure kasurako neurri batean eredia izan daitekeen Quebec-eko terminologi lana aurkezteari, horri erantzuteko.

Quebec-en, frantsesaren normalizazioa bultzatzeko, "Charte de la langue française" deritzan legearen babesean "Office de la langue française" izeneko hulegoa sortu zuten 1961ean. Ai patutako legeak bulego honi ezarri zion zeregina "frantsesa le-

henbailehen komunikabideetako, laneko, merkatalgoko eta bai Administrazioan eta bai enpresatan aferetako hizkuntza bihurtu ahalegintzea zen. Bulegoa sortu eta handik zortzi urtetara, 1969an, honek "Banque terminologique du Quebec" izeneko terminologi zentrua eratu zuen. Hemen, hasiera batean 30.000 fitxako terminologi fitxategi erdiautomatizatu bat antolatuta zen, baina sistema honek bulegoaren premia gero eta handiagoi behar bezalako erantzunik ematen ez zuelako terminologi banku bat eraiki beharra ikusi zen.

Projektuari 1973an ekin zitzaion. Gaur egun Quebec-ko Terminologi Bankua tresna egokia da frantsesaren erabilera hedatzen laguntzeko. Erakunde honek quebecdarren irispidean ipintzen ditu frantsesezko terminologiak eta terminologiari buruzko dokumentazioa, enpresak eta Administrazioa frantsestu ahal izateko.

Eginkizun hau betetzeko Quebec-eko Terminologi Bankuak bere buruari ezarri dizkion helburuak ondokoak dira:

- Frantseste-prozesua aurrera eramateko behar diren terminologiak eta hauei buruzko dokumentazioa biltzeko eta tratatzeko bitarteko egokiak prestatzea.
- Enpresa eta Administrazioaren irispidean terminologiari buruzko informazioa jartzeko eta automatikoki kontsultatu ahal izateko sarea eratzea beren terminologi lanak, itzulpenak, idazketa-lanak eta zuzenketak bizkortzeko.
- Terminologi lanak egiten laguntzea, Bulegoko terminologiariek, Administrazioko erakundeek eta enpresek behar dituzten txostenak eta terminologiari buruzko dokumentuak eskainiz.
- Terminologi lanen koordinazioan parte hartzea bai nazio-mailan eta bai nazioarteko mailan eta baita herrialde frankofonoekiko eta frantsesa laneko hizkuntzatzat duten nazioarteko erakundeekiko terminologiari buruzko informazioaren trukea bideratzeko sare bat eratzea ere.
- Bulegoaren helburuak gauzatzeko behar diren datu terminologiko, linguistiko eta dokumentazioen tratamendu automatikoaren alorrean ikerkuntza teorikoa eta aplikatua egitea.
- Frantsesaren erabilera hedatu ahal izateko dokumentazio terminologikoa, zientifikoa eta teknikoa eskueran jartzea ikertzaileentzat eta publikoarentzat oro har, liburutegi-sare bat eratzu.

Sei fitxategik osatzen dute gaur egun Terminologi Bankua: bi terminologi fitxategik, erabilera-eremuen thesaurusaren fitxategiak, erreferentzia bibliografikoen fitxategiak, terminologiari buruzko dokumentazioaren fitxategiak eta erakunde, idazle, liburutegi eta enpresen fitxategiak.

Hauen artean interesgarrienak terminologi fitxategiak eta terminologiari buruzko dokumentazioarenak dira. Azken honek baditu 25.000 erreferentzia bibliografiko. Terminologi fitxategitako batek terminologia landu eta finkatua dauka, zabalkunderako egokitzat daukatena. Bere baitan 125.000 fitxa ditu. Bestea laneko fitxategia da, oraindik zabalkunderako garbiketa-lana eskatzen duten fitxak dauzkana. Hemen 650.000 fitxa daude.

Frantsesa Quebec-en laneko hizkuntza bilakatu ahal izateko terminologi lan sakona egin behar izan da. Frantsesaren Bulegoko espezialistek enpresatako eta Administrazioako hizkuntz egoera aztertzen dute, terminologi premiak zehazten dituzte eta hutsuneak betetzen ahalegintzen dira.

Enpresa handiek, ministeritzek eta itzulpen-zentru handiek terminal bidez kontsultatzen dituzte Terminologi Bankuko fitxategiak.

Terminalik ez dutenek berriz idatziz edo telefono bidez egiten dituzte kontsultak.

Honetaz gainera Terminologi Bankuak termino-zerrendak eta bibliografiak argitaratzen ditu.

Euskal Herrian oso urrun gaude prozedura hauek erabiltzetik. Canadian edo Alemanian duten bezalako Terminologi Zentru Ofizialik ez dugu. Antzeko lana UZEIk egiten duena izan liteke, baina hau gaur egun zentru pribatu bat da eta gainera Canadian duten frantsesa laneko hizkuntza bihurtzeko legearen pareko legerik ez dugu euskararentzat.

UZEIn egiten ari garen hiztegitantzaren informatizazio-lanak eraman gaitzake Terminologi Banku bat eratzerara baldin eta horrek eskatzen duen metodologia garatzen badugu, baina horretarako oraingoz dugun baino planginta zabal bat egiteko bitarteko gehiago beharko genuke. Urtean urteko baliabideak eskuratzeko kezka dugun bitartean ezin izango dugu lauzpabost urtetako aurrikuspenik egin, ez nazioarteko harremanik sendotu, ez bertako langileen prestakuntzarik planteatu. Eguneroko eskarmentuak gidatuta, azken finean beste lekutan egiten denaren antzeko zerbait egiten dugula konturatzen ga-

ra, baina, ezinbestean, erritmoa oso motela da eta eredu horiei jarraitzeko beharko genukeen aldaketa kualitatiborik ezin dugu gauzatu.

Oraintxe bertan honelako zerbait egin nahi izango bagenu, lan berritan sartu ordez, dagoeneko landua eta ordenadorean sartua duguna txukuntzeko, sailkapen eta definizio-sistema egoki bat ezartzeko, agian argitalpenak egiteari utzi beharko genioke denbora batez, bestelako zerbitzuak (kontsultategia adibidez) ahalik eta gehien murriztu beharko genituzke eta kalitatea lortzera bideratu beharko genituzke gure ahalegin guztiak.

Agintarien eta UZEIren arteko elkar hizketa serio eta emankorrak bidera lezake hau, bestela jai dago. Bitartean, nora joan nahi genukeen jakinda ere, abiatu ezinda geratuko gara. Gauza bat dago garbi, euskara laneko hizkuntza bihurtzen ez den bitartean tramankulu sinboliko baino askoz gehiago ez dela izango eta horretan geratuko ez bada bitartekoak ipini beharko direla.